# LanHitz

Eguneroko lanean ere euskaraz

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

1

# ZER da LANHITZ?

LANHITZ Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bultzatutako dirulaguntza programa da. Programa honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoan sektore pribatuan dauden lantokietan euskararen erabilera eta presentzia areagotzea da.

# NORK eska dezake LANHITZ dirulaguntza?

- EAEn lantokia duten pertsona fisiko edo juridiko pribatu guztiek.
- Elkargo profesionalek: euren funtzio pribatuak egikaritzeko.

**OHARRA:** deialdi honetatik bazter geratuko dira euskal sektore publikoa osatzen duten entitateak, euskara-zerbitzuak eskaintzen dituzten entitateak, unibertsitateaz kanpoko ikastetxeak eta haien fundazioak.

2

3

## **NOIZ** argitaratzen da **LANHITZ** dirulaguntza?

**URTERO** argitaratzen da LANHITZ dirulaguntza.

4

## **ZENBAT DENBORA** dago eskaera egiteko?

Deialdia arautzen duen agindua EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera **HILABETEKO EPEA** dago eskabidea egiteko.

5

# NOLA ESKATU behar da LANHITZ dirulaguntza?

Pertsona edo entitate interesdunek bide elektronikoak erabili behar dituzte prozedurako izapide guztiak egiteko, kontsultatzeko eta eskatzeko.

## Harremanetarako:


Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza
945018109 / 945018115 / 945019487
**lanhitz@euskadi.eus**

# LABURPENA

| ZER LAGUNTZEN DA DIRUZ? | BALDINTZA | ZENBAT URTEZ JASO DAITEKE? | ESKATZEN DEN AUTOFINANTZAZIOA | ZENBAT DIRU JASO DEZAKET? | DIRUZ LAGUNTZEN DIREN KONTZEPTUAK |
|---|---|---|---|---|---|
| Ekintza solteak (1. multzoa) | Euskara Planik ez | 5 urte | Gutxienez % 20 | 6.000 € | · Itzulpenak<br>· Aldibereko itzulpen zerbitzua<br>· Langileen euskalduntze zein alfabetatze ikastaroak<br>· Langileentzako prestakuntza-ikastaroak euskaraz<br>· Aldahitz edo gisako metodologian oinarritutako prozesuak<br>· Euskararen sustapen orokorrarekin lotutako ekimenak edota euskararen motibazio ekimenak<br>· Softwaregintza<br>· Ekintzen edo plangintzaren jarraipena, ebaluazioa, inplementazioa eta egokitzapena<br>· * Erakundearen diagnostikoa eta euskara planaren diseinua (2. multzoa) |
| Diagnostikoa eta euskara plana diseinatzea (+ ekintza solteak) (2. multzoa) | Euskara Planik ez | Behin | | 9.000 € (1-10 langile)<br>11.000 € (11-50 langile)<br>13.000 € (51-100 langile)<br>14.000 € (100 langile baino gehiago) | |
| Urteko kudeaketa plana garatzea (3. multzoa) | Euskara Plana | Lanhitzen 18 urtez dirulaguntza jaso arte | Gutxienez % 40 | 35.000 € (Lanhitz laguntza 12 urtez jaso arte)<br>25.000 € (Lanhitz laguntza 12 urtez jaso ostean) | |
| Proiektu estrategikoak garatzea (4. multzoa) | - | Mugarik ez* | | | |

** Multzo honetan hiru urtez dirulaguntza jaso dutenek berriro ere onuradun izan ahal izateko Bikain ebaluazioa (osoa edo partziala) pasatu beharko dute laugarren aldiz dirulaguntza jaso ahal izateko. Aurrez noizbait Bikain ebaluazioa pasatu dutenek gehienez ere beste bi urtez ere jaso ahalko dute dirulaguntza baldin eta bi urte horietan plantillako norbait Bikainen ebaluatzaile aritzen bada. Kasu horretan, urte bakoitzean plantillako norbaitek Bikaineko prestakuntza jaso eta ebaluatzaile aritu beharko du urteko ebaluazio-aldietako batean.*